koop57 SCCL
finantza-zerbitzu etikoak eta solidarioak

informazio-buletina 45
2023ko 2. seihilekoa

# Harago egin, aurrea hartzeko

## editoriala

Bistakoa da XXI. mendeak gure gizatasuna proban jarriko duela egiturazko basakeria sistematiko honi aurre egiteko. Krisi multidimentsionalek larritu dute, eta planetaren erronka handiei aurre egitea eskatzen dute. Horrek gogorarazten digu 1995az geroztik dela guretzat egunero proba bat. 2025 urtean Coop57k 30 urte beteko ditu. Hiru hamarkada, uneko beharrizanei, premiei eta kale itsuei erantzuten. Esan genezake beti egon garela hainbat krisialdiren erdian, eta beti bilatu ditugula erantzun solidarioenak –maiz ezezagunak– eta modu kooperatiboenak. 1995ean hasi ginen, bi mailegu eta 5 milioi pezetarekin; ordutik eta gaur arte, 4.248 mailegu baino gehiago eta 210 miloi euro eman ditugu. Hori da albiste ona, nolanahi ere. Hala egin genuen 80ko hamarkadako desindustrializazioaren ajealdian; 90eko hamarkadan, prekarietatea egunerokotasun bihurtu zenean eta kreditua eskuratzea gizarte ekonomiarako oztopo zenean; edo 2003an, Irakeko gerra kriminalaren garaian. Ondotik etorri zen 2008a ere; finantza-krisi basatia eta oraindik amaitu ez diren milaka etxe-kaleratzeak ate joka zeudenean; 2020an, pandemiaren erdian; edo orain bertan, Ukrainako gerraren eta Gazako genozidioaren garaian, inflazio-zikloaren erdigunean. Krisialdi bakoitzari eman diogun erantzuna: elkartasun gehiago, demokrazia gehiago, elkar laguntza gehiago. Zitalkeria bakoitzetik harago joatea izan da gure aterabidea, itxitako ateak irekiz eta premia berriei helduz.

Horregatik, gaur egun, ekonomia eraldatzailearen sarea, aspaldititk –diktadurak zapaldu nahi izan izanda ere– datorren ahalegin kolektiboaren fruitua, inoiz baino errotuago dago. Etorkizuneko ispilu demokratiko zaigu, erreferentzia-eredua eratzen du eta konpromiso berriei aurre egiteko ahalmena du. Horretan gabiltza dagoeneko: finantziazio etiko kooperatiborik gabe ez legoke erabilera-lagapeneko etxebizitza kooperatiborik, ezta jabetza demokratiko eta kooperatiboko komunitate energetikorik ere, ezta pandemiaren eta gerraren kolpeei aurre egiteko erresistentzia finantzariorik ere, ezta proiektu sozial eraldatzailerik ere lurralde osoan. Eta horretan jarraituko dugu: apustu estrategiko berriei ekingo diegu laster –harago egin eta aurrea hartzeko– Coop57k jarrai dezan, eraldaketa sozialaren eragile aktibo gisa, finantza-motor izaten, gero eta sendoago eta errotuago, bizitzaren aldeko ekonomia eraikitzeko. Gure hedapena –beti iraunkorra eta sarean egina– esperientzia arrakastatsua da, premiazkoa den hori jorratu delako, eta irtenbide kolektiboak bilatu direlako, orainari erantzunez etorkizunean pentsatuta.

> **“COOP57k beti bilatu izan ditu irteera kolektiboak, orainari erantzunez etorkizunean pentsatutaa”**

Bitartean, banku handiek iaz 26.000 milioi euroko irabazi garbiak, historikoak eta lotsagarriak, lortu zituzten; energetikek, berriz, 6.000 miloi euro. Ezer gutxi gehiago dugu esateko: zuek, ziur aski, argi esan dezakezue –gaur, orain, hemen eta mundua bortxatzen dutenen aurrean– hori guztia ez dela egingo ez gure izenean, ezta gure diruarekin ere. Zerutik eroritako etekin ekonomikoei lurretik datozen itxaropen kooperatiboak jarriko dizkiegu aurrean. Laster hogeita hamar urte beteko ditugu, bai, eta azkar esaten da. Ordutik, Coop57 gauza asko dira aldi berean: zuetako bakoitza, finantza-tresna kooperatiboa, erakunde komun bat, sarean lan egiten duen ekosistema solidarioa eta herri-mugimendu eraldatzaile zabalago baten parte. Itxaropen kontrafaktikoa da, humanista eta erreala, operatiboa eta iraunkorra, guztion artean antolatzen jakin duguna. Urrutira joateko, gero eta gertuago joan behar baita. Eskerrik asko, beti.



2023ko balantzea

# 2024: erronka guztiak, konpromiso guztia

**2023 urtea, 2018 urtearekin alderatuta, kredituen bolumena bikoiztuta eta 2024-2028 aldirako erronka estrategikoak eta jauzi kualitatiboa definituko dituzten ildo nagusiak zehaztuta amaitu dugu**



2022ko udaberrian ziklo makroekonomikoa goitik behera aldatu zen; harrezkero, inflazioaren gorakadari egiten ari gara aurre. Interes-tasak handitzearen bidez ari dira saiatzen inflazioa kontrolatzen eta, ondorioz, soldata errealen erosteko ahalmena murriztu eta oinarrizko produktuen prezioa etengabe hazi da, hala nola energia, etxebizitza edo elikagaiena. Hori guztia, gainera, krisi klimatikoko eta ziurgabetasuneko testuinguruan, gerrak ugaritzen ari diren honetan, egungo kontingentzia eta konplexutasun handiaren aurrean. Ez dira betiko garai onenak; zailak eta nahasiak dira. Duela urte batzuk, esaterako, Europako ekonomiaren arlo askotan aurrezkiak babesteko interes negatiboetarantz egiteaz ari ziren, eta egun paradigma-aldaketa hori desagertu egin da.

> **"2018an 14.570.010 € eman genituen mailegutan; 2023an, berriz, 26.202.961 €"**

Coop57 ez dago errealitate horretatik kanpo, eta interes-tasa handien politikak bete-betean eragiten dio finantza-jarduerari. 1990eko hamarkadaren erdialdean jaio ginenetik, gure izaera eta babesleku izan dira erresistentzia, erresilientzia eta egokitzeko ahalmena, eta inoiz ez dituzte aldarazi xede eraldatzailea, ezta gure oinarrizko printzipioak ere, hau da, autogestioa, horizontalitatea eta sarean haztea. Izan ere, testuinguru aldakor honetan ere, ekonomia sozial eraldatzailea hedatzen, indartzen eta hazten ari den ziklotik gatoz, eta hori ere ikus daiteke kooperatibaren emaitzetan. Ziurgabetasunak gorabehera, finantziazio kooperatibo, etiko eta solidarioko ahalmena zabaltzen eta bazkide berriak gehitzen jarraitu du Coop57k. Maileguen saldoa bikoiztu baino gehiago egin dugu azken 5 urteetan: 19 milioi eurotik ia 40 izatera pasa da. Hazkunde horren beste datu adierazgarri bat: 2018an mailegutan guztira 14.570.010 euro eman genituen; 2023an 26.202.961 euro eman ditugu.

Azken ziklo honetan, pandemia bat, gerra berri bat eta ezegonkortasuna protagonista diren honetan, gero eta konplexuagoa da ere gure jarduna, eta bestelako kapital-ekarpen motak –bereziki epe luzerakoak– behar dituzten eta ESEren berezko dinamismoaren fruitu diren sektore berrietara zabaldu gara: etxebizitza-kooperatibak eta gizarte-etxebizitza, lurzoru komunitarioa, trantsizio energetikoa, eta lokalak eta egoitza sozialak eskuratzea eta/edo egokitzea. Dinamika horrekin batera etorriko da, halabeharrez, proiektua indartzea, ekonomia sozialaren finantza-beharrizan berriekin batera behar baitira baliabide berriak, oraingo eta etorkizuneko erronkei heltzeko, une oro eraikitzeko erantzun irmoak, solidarioak eta komunitarioak.

### Erronka ekonomikoak

Gure ahalmen finantzarioa handitzea da berehala egin beharreko zeregina. Harago egin eta egoerari aurrea hartzeko, pertsona gehiago, baliabide gehiago eta aurrezki gehiago behar ditugu, ezinbestekoa zaigun eraldaketa soziala helburu. Ekarpenen erritmoa nabarmen bizkortu behar dugu, finantza-eskaeraren igoera parekatzeko. Ez da zerbait berria guretzat: beti egin duguna da, eta eskala-aldaketak erakusten digu gure eredua baliagarria, kaudimenduna eta arrakastatsua dela. Azken bost urteetan, baina batez ere 2022az geroztik, bazkideen kopuruak ez dio inoiz hazteari

**COOP57 zenbakitan 2023**

lurralde-sailak
**7**

zerbitzu-bazkideak
**1.189**

bazkide kolaboratzaileak
**5.437**

2023ko mailegu berriak
**334**

2023ko maileguen bolumena eurotan
**26.202.960**

zergen aurretiko irabazia (estimazioa)
**109.405**

1995etik emandako maileguak
**4.248**

1995etik emandako maileguen bolumena eurotan
**209.029.062**











utzi –bazkide kolaboratzaileak % 30 hazi dira eta zerbitzu-bazkideak % 35–. Hala ere, erritmoa nabarmen moteldu da. Ez da hori gertatzen den lehen aldia, maiz beharrizanak erantzunaren aurretik baitoaz. Gure hazkundearen historia beti izan da planifikatua, jarraitua eta iraunkorra, eskalatua eta egokitua,

> **“Harago egin eta aurrea hartzeko, inplikazio gehiago, baliabide gehiago eta aurrezki gehiago beharko ditugu”**

sendoa eta errotua. Ildo horretatik, Coop57 dagoeneko lanean ari da finantziazio-iturriak dibertsifikatzen, ekarpenen tipologiak zabaltzen eta funts propioak hazteko apustua egiten –datorren udazkenean abiaraziko dugu–.

## Erronka sozialak, politikoak, antolakuntzakoak eta teknologikoak

Erronka ekonomiko eta finantzarioekin lotuta, eta oro har, ondoriozko beste erronka bat dugu: Coop57 tresna kooperatiboa etengabe hobetzea. Eremu sozialari dagokionez, oinarri sozial sendoa –zabala eta iraunkorra– handitzen jarraitu dugu, jarduteko ahalmen handiagoa izan dezagun eta, aldi berean, oinarri soziala hobeto dinamizatzeko aukera eman diezagun, komunikazioa, inplikazioa, harremanak eta elkarrekintza hobetuta. Hiru hamarkadatako ezagutza, datu eta esperientzia ugari bizkarrean ditugula (Kataluniako ekonomia sozialaren historia bera), gure egitekoaren inpaktu sozial positiboak hobeto neurtu eta ebaluatzeko apustua ere egin dugu.

Antolakuntza-ereduari dagokionez, lehentasuna da talde teknikoa eta profesionala indartzea, segurtasun informatikoko soluzio teknologiko berrietara egokitzea eta Arrisku Batzordea birformulatzea, jarduerak berak egun duen konplexutasuna, dibertsifikazioa eta dimentsioa kontuan hartuta. Eremu politikoari dagokionez, partaidetza-organoak indartu egingo dira, antolakuntza-aldaketari eta trantsizio-prozesuari laguntzeko hausnarketarako guneak eratuko dira, eta ekosistema kooperatiboko entitateekin harremanak eta interkooperazioa sustatuko dira, haiekin partekatzen baitugu jarduera, proiektuak eta etorkizuna. Horrek guztiak nabarmen eragiten du kooperatibaren komunikazio-politikan; Coop57ren identitate grafikoa, narratiba eta tresna informatiboak eguneratzeko eta berritzeko prozesu integralaren hasieran zehaztu zen, komunikazio sozialeko aro berri bati ekiteko.



**Diru etikoaren eskanerra**

# 98'5/100: bikain

**Diru Etikoaren eskanerrak bikaintasun-parametroetan kokatzen du Coop57, eta finantza etiko eta solidarioen printzipio gidariak betetzeari dagokionez, estatu mailako zerrendako buru da**

Finantza Etiko eta Solidarioen FETS elkarteak sustatzen du eskaner hori eta haren ebaluaziok adierazten du Coop57k honako eremu hauek betetzen dituela: koherentzia, Espainiako Bankuan salaketarik edo bestelako lege-hausterik ez izatea, sarean lan egitea –FEBEA, XES, FCTC eta REASeko kidea da–, soldaten ekitate-ratioa edo komisioak kobratzean gehiegikeriarik ez aplikatzea. Partaidetza-printzipioari eta gobernantza kolektiboari dagokienez, puntuaziorik altuena lortu du Coop57k; izan ere, arau demokratikoak ditu eta kapitalak ez du parte-hartzea baldintzatzen. Bazterketa-printzipioari dagokionez, eskanerrak azpimarratzen du ez dela euro bat bera ere helburu militaristetara bideratzen




eta Coop57 ez dela inoiz agertu Banca Armadaren datu-basean –finantza-entitate handiek armen zikloan parte hartzea salatzen duen txostena da–. Eskanerrak adierazten du ez dugula egoitzarik edo sukurtsalik paradisu fiskaletan, ez dugula energia fosil edo nuklearrera baliabiderik bideratzen eta, garden eta publikoki, funts guztiak inpaktu handiko helburu sozial eta etikoetarako soilik erabiltzen direla egiaztatzeko informazio guztia dugula. Azkenik, konpromisoari dagokionez, nabarmentzekoa da Coop57k ez duela finantza-espekulazioan ezta burtsan parte hartzen.




Bost eremuetatik lautan, Coop57k eskakizunen % 100 betetzen du, eta irizpide guztiak ia modu integralean betetzen dituen estatuko lehen entitatea da. Guztiz bete ez den eremua gobernu-organoetako emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna da; oraindik ez da % 50era heltzen, ildo horretan aurrera egin bada ere. Beste entitateekin alderatuta, Coop57k % 98,5eko puntuazioa du, zerrendako lehen postuan dago, eta BBVA da azkena, % 1eko puntuazioarekin.

Informazio gehiagorako, kontsultatu **www.fets.org** eta **www.dineretic.org** webguneak



**Aleix Puiggròs**

Bartzelona

Coop57ko bazkide kolaboratzailea

**Aleix Puiggròs informatikaria da lanbidez, 51 urte ditu eta 2009tik da Coop57ko kolaboratzailea. Bartzelonan bizi da eta bi seme biki ditu. Zaletasunei buruz galdetuta, lanbidea bera aipatzen du -informatikarekiko pasioa-, baina argazkilaritza ere gustuko du**

# «Zergatik? Badakidalako lehenengo eurotik azkenera arte, dena gizarte-eraldaketa finantzatzeko erabiltzen dela»



**Nola izan zenuen Coop57ren berri? Eta noiz?**
Entitate etikoen bila nenbilen eta izan nuen aurretik esperientziarik, baina arrebaren lagun baten bidez, eta FETS elkartearen hitzaldi baten ondoren, Coop57 ezagutu nuen. Gainera, Coop57k finantzatzen duen proiektu bat ondo ezagutzen nuen: L'Olivera, aurten 50 urte beteko dituen proiektua. Bazkidea naiz 2009ko urtarrilaz geroztik. Orduan Méndez Núñez kalean zeundeten. Irakeko gerraren eta militarizazio globalaren finantza-zikloaren ondoren, ez nituen aurrezkiak ohiko bankuetan eduki nahi, eta aukera berri bila hasi nintzen. Gaur, Gaza eta Ukrainako egoerak ikusita, harro nago erabakiaz.

**15 urte daramatzazu Coop57n. Aurretik antzeko esperientziarik izan al zenuen?**
Bai. Baina aurretik nuen bankuak –banku handia da eta hobe horretaz ez hitz egitea– ez ninduen batere konbentzitu eta segituan egin nuen alde. Coop57ren kasuan, eta aurrezkien gaia ez denez samurra, aitortu behar dut hasierako beldurra berehala desagertu zela: zehazki, parte hartu nuen lehen Batzar Nagusiaren ostean. Garai hartan Coop57k ez zuen orain duen ospea. Kontu korrontea kolpean hustu eta aurrezki guztiak Coop57n jarri nituen, eta gogoratzen dut, irribarrez eta erdi txantxetan, apur bat sufritu nuela egiaztagiriak postaz iritsi zitzaizkidan arte. Beste garai batzuk ziren, ez hain digitalak. Baina lehen unetik iruditu zitzaidan behar bezala daudela orekatuta kontingentzia eta kaudimena, zuhurtzia eta konpromisoa, informazioa eta konfiantza. Konturatu nintzen Batzorde Sozialak lan handia egiten duela eta proiektu bakoitza sakon lantzen duela. Alegia, oreka ezin hobea dagoela aurrezkiak nola zaintzen diren eta zertarako erabiltzen diren artean.

**Zer nabarmenduko zenuke?**
Hiru elementu nagusi. Lehenbizi, aurrezkien zikloa ikaragarria iruditzen zaidala: lehenengo eurotik azkenera arte gizarte-eraldaketa finantzatzeko erabiltzen da beti. Bigarrenik, behar berri bat detektatzen den lekuan Coop57k tresna bat aurkitzeko bertutea duela. Horixe du historia, erronka eta arrakasta. Eta hirugarrena, badituela ezagutza eta esperientzia, banku izan dadin –esperientziena, memoriarena, aukerena– alternatiba solidarioen bila dabiltzan guztientzat. Eta azken elementu orokor bat: beti elkarrekin egiten dugula, elkar laguntzen dugula, elkar babesten dugula. Beharrak bultzatuta elkartzen gara, baina borondatez saretu. Beharrizana ahalmen bihurtu dugu.

**Geroago, ezagutza profesionalak tarteko, aktiboki kolaboratzen ere hasi zinen.**
Bai, segurtasun informatikoaren arloan. Batzorde teknologikoa hasi zenean. Gauza interesgarriak egiteko aukera ematen dit, berrikuntzak aztertzeko, baita terapiarako ere (barreak); oso proiektu interesgarriak ezagutzen ari naiz. 2011n hasi nintzen orain, erritmo biziko gizarte digital honetan, arraroa dirudien zerbaitetan: mezu elektronikoak bidaltzeko zerrenda automatizatuak egiten nituen. 2015-2016an integrazio gero eta konplexuagoak bilatzen hasi nintzen, eta entitateek Coop57ren webguneko galdetegiak zuzenean betetzeko ere lan egin genuen. Eta beste hainbat gauza ere egin ditut, datu-prozesamenduari eta prozesu-sistematizazioari lotuta beti.

**Eta nola ikusten duzu Coop57ren etorkizuna?**
Asterix eta Obelix bezala, zerua gainera noiz eroriko zain, baina beti izan da hala, ezta? Bai, hala izan da beti. Nire iritziz, Coop57ren arrakasta izan da etengabe eta modu iraunkorrean hazi dela, eta bertikalki hazi ordez, horizontalki, sektoreka, lurraldeka hazi dela. Neurrigabeko hazkundeari uko egin dio, beste proiektu askok ez bezala. Uste dut hori dela gakoa, eta garrantzitsua da ulertzea eta, batez ere, azaltzen jakitea. Horretan bete-betean asmatu da. Beste arrazoi nagusia da zailtasunak dituzten proiektuak laguntzen jarraituko duela Coop57k. Aurreztea bezain keinu soil batekin eraldaketa soziala finantzatzen ari zarela lau haizetara zabaldu beharreko datua da.

**Nola deskribatuko zenuke labur Coop57?**
Beste modu batean aurreztea posible dela frogatzen digun adibidea da, bizia eta egunerokoa. Merezi duen ebidentzia da. Coop57 hor egongo da, hor egoteko ahalegina egiten badugu: guztion esku dago. Heldulekurik badago, hori Coop57 da. Leku kolektiboa. Eusten dugun bitartean, elkar eusten dugun bitartean, iraun egingo du. Eta hori albiste ona da.

Somos Todas Batzorde Feminista

# «Feminismoa emakumeak pertsonak direla dioen ideia erradikala da»



**Angela Davisen esaldiaren haritik, Batzorde Feministak adierazi nahi du aspalditik su txikian prestatzen ari ginen aldarrikapena onartu zela pasa den otsailaren 24an: batzordearen barnean egitura egonkor bat eratzea. Apustu horren helburua da gure lana indartu eta sustatzea, eta Coop57 barnean ekonomia feministaren praktikak bultzatzen jarraitzea**

Somos Todas Batzorde Feminista 2020an sortu zen, kooperatibaren barruan antzematen genituen hainbat beharren inguruan lan egiteko asmoz. Iazko martxoan egindako bilera –askok aurrez aurre egoteko aukera izan genuen– baliagarria izan zen batzordearen helburu berriak lantzeko, baita esperientziak partekatzeko ere.

Une horretatik aurrera, eta gaur arte, lan handia egin dugu eta, horren ildotik, koordinazio berri horren artikulazioarekin batera, hurrengo urratsen berri eman nahi dizuegu. Hori bai, honaino ekarri gaituen bide luzea gogoan izanda:

- Batzordea indartu eta sendotzea, Coop57 presente dagoen lurraldeetan ordezkaritza handituta. Langile berriei lagunduko diegu batzordean eta aurrez aurreko bilerak sustatuko ditugu, harremanak estutzeko.
- Sexu-jazarpen edo diskriminazio egoerei aurre egiteko protokoloaren batzordea egoera horiek detektatzeko eta egun onartutakoa hobetzeko lan egiten ari da. 2024 urtean zehar, protokoloa eguneratzea proposatu du batzordeak, baita kooperatibako langile eta organoak prestatzea ere, hala Coop57n sexu-jazarpeneko egoerak prebenitu eta detektatzeko.
- Jakin badakigu Plan Feminista jorratu aurretik beharrezkoa dela prestakuntza, entitatearen diagnostikoa genero ikuspegitik egin ahal izateko.
- Batzordeak martxan jarri duen tresnetako bat kooperatibaren barruan ditugun partaidetza-espazioak behatzeko metodologia izan da. Nork hartzen du parte gehien? Nork hitz egiten du gehiago? Nork pilatzen ditu kargu gehiago? Tresna horren bidez galdera horiei erantzun nahi zaie. Hala ere, eta behar bezala aplikatu ahal izateko, uste dugu beharrezkoa dela metodologia hori kooperatibaren espazio guztietara hedatzea.
- Coop57k entitateei ematen dien finantziazioaren inpaktu soziala ebaluatzeko erronkan parte hartu nahi dugu, ikuspegi feminista txertatzeko.
- Feminismo hitza ekintzaren bitartez esanahiz betetzeko asmoz, bazkide egin nahi duten entitateek zein irizpide bete behar dituzten ere definitu nahi dugu. Helburua da ikustea nola dauden txertatuta irizpide horiek galdetegi sozialean.
- Finantza etikoak publiko zabalagora eta ez-profesionalera hurbiltzea proposatzen dugu, hizkera ulerterrazagoa erabilita, gure bazkideekiko ahalik eta gardenen izan gaitezen.

Azkenik, guretzat oso garrantzitsua da batzordearen lana gehiago ikusaraztea, denek ezagutu eta aintzat hartzen gaituztela ikustea.

**Coop57ko *Somos Todas* Batzorde Feminista**



comisión feminista

# Lurralde-sailak
## 2023ko bigarren seihilekoa



BAZKIDE KOLABORATZAILEAK, GUZTIRA **5.362**

ZERBITZU-BAZKIDEAK, GUZTIRA **1.153**

**Antolatzeko eredu horizontal eta deszentralizatua du Coop57k, eta sarean egiten du lan. Lurralde-sailetan dago banatuta; bakoitzak bere organoak eta parte hartzeko egiturak ditu**



## Andaluzia

**402** BAZKIDE KOLABORATZAILE

**89** ZERBITZU-BAZKIDE

- Seihileko honetan, lau bazkide berri sartu dira: El Ciervo, Hierbabuena, Los Jornaleros eta Los Moledores kooperatibak. Marinaledakoak dira guztiak: udalerriko hamar kooperatibetatik bederatzi Coop57ko bazkide dira dagoeneko. Gainera, Oikocredit-Sevilla bazkide kolaboratzaile egin da, eta bi entitateon arteko aliantza indartu da.

- 665.000 € eman ditugu mailegutan: bost mailegu berri, lau poliza eta inbertsio-mailegu bat. Hainbat ekimenetan parte hartu dugu: Coop57ren aurkezpenak, ekonomia sozialeko topaketak, jardunaldiak ingurumen-hezkuntza zentroetan, gizarteratze-enpresak, etxebizitza kooperatiboa eta energia-komunitatea, eta bigarren hezkuntzako institutuetan hitzaldiak. Gainera, Ekonomia Sozialeko Eskolak bultzatutako Finantza Etikoen Plataforma sortzea babestu dugu.




## Aragoi

**475** BAZKIDE KOLABORATZAILE

**67** ZERBITZU-BAZKIDE

- Todo Servicios Múltiples enpresa bazkide egin da; laneratze-enpresa da, eta oinarri ditu agroekologia-jarduera, elikadura-burujabetza eta soberakinen eraldaketa. 2008 urteaz geroztik, zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak lan-munduan txertatzen laguntzen du, hala tokiko ekonomia-garapena sustatuz.

- Lau mailegu eman ditugu, guztira 276.000 €. Diru-laguntzak aurreratzeko, likidezia-arazotarako edo inbertsiotarako izan dira. REAS Aragoiko Etxebizitza Taldearekin batera, erabilera-lagapeneko etxebizitzari buruzko saioa antolatu genuen; Sobrarbe eskualdean ekonomia sozialeko proiektuekin egindako topaketan parte hartu genuen, eta, FETS eta Fiare Aragónekin batera, Finantza Etikoen Barometroa aurkeztu genuen. Zaragozako Las Fuentes auzoko Tokiko Merkatu Sozialaren Azokan amaitu genuen urtea.



## Asturias

**84** BAZKIDE KOLABORATZAILE

**25** ZERBITZU-BAZKIDE

- Bederatzi mailegu eman dira, guztira, 70.000 €. Hala, hainbat bazkideren –Finca el Cabillón, Kikiricoop eta Edes– altxortegi-beharrizanei erantzuna eman diegu.
Hiru bazkide berri ditugu: Cooperativa Agroexológica de Cabranes, hainbat ekimenen bidez landa-mundu biziaren alde egiten duen entitatea; La Vorágine kultura kritikoko proiektua, duela hamar urte baino lehenagotik Santanderreko kultura-bizitza astintzen duena, eta Edes, Asturias mendebaldeko gizarte-ekimeneko kooperatiba, erreferentea dibertsitate funtzionala duten ikasleen gizarteratzearen eta hezkuntzaren arloan.

- Irailean, Aviléseko bazkide eta ekimenekin elkartu ginen, lurralde-sailaren batzarra baliatuta. Bertan, lurraldean ematen ari diren borrokak ezagutu genituen, eta Coop57ren jardunean sakondu ahal izan genuen, Asturiasko errealitatean tresna gisa duen erabilgarritasunari buruzko eztabaidatzeko.

# Katalunia

**3.306** BAZKIDE KOLABORATZAILE

**727** ZERBITZU-BAZKIDE

- Bigarren seihilekoan 28 zerbitzu-bazkide berri batu dira; lehenengo seihilekoan batu ziren 31 bazkideri gehituta, inoizko zifrarik altuena lortu da. Maileguei dagokienez, guztira, bederatzi milioi euro eman dira, 130 operazioren bidez: maileguak, diru-laguntzen aurrerapenak eta kreditu-polizak izan dira. Nabarmentzekoa da hainbat mailegu eman direla entitateen lokalak egokitu eta abiarazteko.

- Irailean, FEBEAren (Europako Banku Etiko eta Alternatiboen Federazioaren) urteroko konferentzian parte hartu genuen, Grezian. Kontinenteko beste entitateekin esperientziak eta ikasitakoa partekatzeko parada izan genuen. Gainera, honako hauetan ere parte hartu genuen: XES (Xarxa d'Economia Solidària) sarearen hogeigarren urteurrenean, Pam a Pam-en hamargarren urteurrenean, eta PACAren hamabosgarren urteurrenean, Can Bofillen. Azken hori Coop57ren lurzoru komunitarioko esperientzietako bat da.



# Euskal Herria

**240** BAZKIDE KOLABORATZAILE

**55** ZERBITZU-BAZKIDE

- Seihileko honetan gorantz egin du jarduerak; sei zerbitzu-bazkide eta hamasei kolaboratzaile berri batu dira. Finantza-jarduerari dagokionez, sei mailegu eman ditugu, diru-laguntzak aurreratzeko bi eta lau kreditu-poliza. Guztira, 114.450,45 euro. Hori gutxi balitz, Nafarroako Katakrak kooperatibarekin batera proiektu eder bati ekin diogu.

- Katakrak eta Coop57 aliatu egin gara jabetzako eta hiri-lurzoruaren erabilerako eredu berri bat probatzeko: Iruñeko Kale Nagusiko 54 zenbakiko eraikina erosi dugu. Helburua da erakustea posible dela hiriguneetako espekulazio-zirkuitu-etatik zoruak kentzea, eta ekipamendu eraginkorrak eta jasangarriak sortzea eta kudeatzea, autogestioa, berdintasuna eta ingurumen- eta komunitate-interdepen-dentziarekiko errespetua oinarri hartuta.



# Galiza

**212** BAZKIDE KOLABORATZAILE

**67** ZERBITZU-BAZKIDE

- Urteko bigarren seihilekoan finantza-eskaera handia jaso dugu entitateen eta proiektuen aldetik. Bost zerbitzu-bazkide berri sartu dira eta 18 finantza-eskaerari eman diogu baietza; guztira, 507.021 € eman ditugu.

- Hainbat ekimenetan parte hartu dugu: "Encontros emprendedores da Axenda Urbana de Santiago"; Consello da Cultura Galega- ren "XXV Encontros para a Normalización Lingüística"; AEIGAk antolatutako "Encontro Networking de empresas de inserción", eta Espazocoopek antolatutako "Encontro de financiamento alternativo". Gainera, "Transformando a educación para o emprendemento a través da economía solidaria" ikastaroaren saioan parte hartu dugu; "Xornadas sobre Vivenda cooperativa desde la economía social" jardunaldietan eta REAS Galizak sustatutako "Tecendo o cambio" ekitaldian. Azken hori Coop57ko bazkidea da. Gainera, "Romaría das finanzas transformadoras" ospatu genuen. Bertan, energia-trantsizioaren inguruan hausnartzeaz gain, musika eta umorea ere izan genituen, Tameigako CMVMCren instalazioetan.



# Madril

**480** BAZKIDE KOLABORATZAILE

**99** ZERBITZU-BAZKIDE

- Urteko bigarren seihilekoan bost zerbitzu-bazkide berri batu dira, eta bost mailegu eman. Guztira, 442.000 €. Mailegua jaso duen entitateetako bat Extremadurakoa da.

- Barne-jarduerari eta proiektuaren hedapenari dagokienez, aipatzekoa da Madrilgo Idazkaritza Teknikoa eta Lurralde Batzordeko kide bat Badajozeko Los Santos de Maimonara bertaratu garela, bertako kooperatiba eta entitateekin biltzera. Bi helburu zituen bilerak: alde batetik, Coop57ren jarduna eta funtzionamendua azaltzea eta, bestetik, bertan sortutako taldeari laguntzeko hausnartzea, luzera begira, Coop57 Extremadura lurralde-saila eratzeko asmoz.



# 2023ko bigarren seihilekoa
# Zerbitzu-bazkide berriak eta mailegu berriak

**53** ENTITATE BERRI

**176** MAILEGU BERRI

## ANDALUZIA

**4** ZERBITZU BAZKIDE BERRI

**5** MAILEGU BERRI

EMANDAKO MAILEGU BERRIAK, GUZTIRA **665.000 €**

### ZERBITZU-BAZKIDE BERRIAK

**EL CIERVO,** S. COOP. AND.

**HIERBABUENA,** S. COOP. AND.

**LOS JORNALEROS,** S. COOP. AND.

**LOS MOLEDORES,** S. COOP. AND.

Cooperativa Marinaleda zortzi nekazaritza-kooperatibak osatzen dute. Erreferentea da dagoeneko, haren inguruan antolatu baita ehun produktibo, kooperatibo eta eraldatzaile handia. Seihileko honetan, Marinaledako lau kooperatiba gehiago batu dira Coop57 Andaluziara eta, beraz, udalerriko hamar kooperatibetatik bederatzi dira Coop57ko bazkide. Kooperatiba bakoitza nekazaritza-ekoizpeneko fase espezifiko batean aritzen da, eta bigarren mailako kooperatibak egiten ditu eraldaketa- eta komertzializazio-lanak.

### MAILEGU BERRIAK

**ASOCIACIÓN PONTE - INICIATIVAS PSICOSOCIALES**

**25.000 €** KREDITU-POLIZA

Esku-hartze psikosoziala eta psikoterapeutikoa zein komunitatea biziberritzeko proiektuak eskaintzen ditu entitate honek. Kooperatibaren likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

**ECOHERENCIA** S.COOP.AND

**80.000 €** KREDITU-POLIZA

Klima-larrialdiaren aurkako ekintzan dabilen entitatea. Kooperatibaren likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak

**LEITMOTIV** S.COOP.AND

**20.000 €** KREDITU-POLIZA

Aholkularitza soziala, nazioarteko lankidetzan eta gizarte-garapenean dago espezializatua. Kooperatibaren likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

**MARINALEDA** S. COOP. ANDALUZA

**300.000 €** INBERTSIOA

**240.000 €** KREDITU-POLIZA

Marinaledako bigarren mailako laborantza-kooperatiba da, kalitatezko nekazaritza-produktuak eraldatu eta komertzializatzen ditu. Bi mailegu jaso dituzte: bata ekipamenduak eta makineria erosteko eta, bestea, kooperatibaren zirkulatzaile-beharrak betetzeko.

## ARAGOI

**1** ZERBITZU BAZKIDE BERRI

**4** MAILEGU BERRI

EMANDAKO MAILEGU BERRIAK, GUZTIRA **276.000 €**

### ZERBITZU-BAZKIDE BERRIAK

**TODO SERVICIOS MÚLTIPLES**

Gizarteratze-enpresa honek agroekologia eta elikadura-burujabetza ditu oinarri, eta helburu du jarduera ekonomikoa eta lanpostuak sortzea, lurraldearen garapena bultzatzeko.

### MAILEGU BERRIAK

**ASOCIACIÓN DE DESARROLLO PARA EL CAMPO DE SALAMANCA Y LEDESMA** (ADECASAL)

**30.000 €** INBERTSIOA

Gizarteratze-entitate hau Salamancako Buenos Aires auzoan aritzen da. Ledesma eskualdeko herrietan garatzen ari diren proiektu komunitarioak finantzatuko ditu maileguak.

**FUNDACIÓN EL TRANVÍA**

**160.000 €** KREDITU-POLIZA

Entitate sozial hau kalitatezko gizarte-baliabideak kudeatzeko sortu zen, komunitatean lan eginez. Kooperatibaren likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

**TODO SERVICIOS MÚLTIPLES**

**66.000 €** INBERTSIOA

Gizarteratze-enpresa honek agroekologia eta elikadura-burujabetza ditu oinarri. Elikadura Zentro Komunitario bat abiaraztea finantzatuko du maileguak.

**LA BEZINDALLA,** SOC. COOPERATIVA

**20.000 €** KREDITU-POLIZA

Kooperatiba hau esku-hartze komunitarioan eta herritarren parte-hartzean aritzen da. Kooperatibaren likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

## ASTURIAS

**3** ZERBITZU BAZKIDE BERRI

**3** MAILEGU BERRI

EMANDAKO MAILEGU BERRIAK, GUZTIRA **70.000 €**

### ZERBITZU-BAZKIDE BERRIAK

**COOPERATIVA AGROECOLÓGICA DE CABRANES,** S. COOP. ASTUR.

Fruta, barazki eta perretxiko ekologikoen ekoizle diren lurraldeko hainbat ekimenek osatzen dute kooperatiba hau. Erakundeak lantegi kolektibo bat du, eta eskolako jangela- eta catering-zerbitzuak eskaintzen ditu.

**EDES** SDAD. COOP. ASTURIANA

Asturias mendebaldeko landa-eremuko irakaskuntza-kooperatiba da, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako kalitatezko hezkuntza eskaintzea helburu du, gizarte- eta hezkuntza-inklusioa abiapuntu.

**VORÁGINE CRÍTICA**

Santanderren kultura kritikoa sustatzeko proiektua da. Jarduera nagusiak liburu-denda eta kulturgune kritikoa dira. Kolektiboki kudeatzen du boluntario-talde batek.

### MAILEGU BERRIAK

**FINCA EL CABILLON**

**25.000 €** KREDITU-POLIZA

Kooperatibaren likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

**KIKIRICOOP** S. COOP. ASTUR

**12.000 €** KREDITU-POLIZA

Kooperatibaren likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

**EDES** SDAD. COOP. ASTUR

**33.000 €** KREDITU-POLIZA

Landa-eremuko irakaskuntza-kooperatiba da, dibertsitate funtzionala duten pertsonen gizarte- eta hezkuntza-inklusioa ditu helburu. Kooperatibaren likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

## KATALUNIA

**28** ZERBITZU BAZKIDE BERRI

**130** MAILEGU BERRI

EMANDAKO MAILEGU BERRIAK, GUZTIRA **9.020.104 €**

### ZERBITZU-BAZKIDE BERRIAK

**OLISTIS,** SCCL

Hizkuntza- eta kultura-zerbitzuak eskaintzen ditu kooperatiba honek, eta enpresei eta erakundeei laguntzen die barne- eta kanpo-komunikazioko prozesuan, nazio mailako zein nazioarteko merkatuan.

**ASSOCIACIÓ FLORESTINA AMICS DE LA CERVESA**

Artisau-garagardoa egiten du proiektu kooperatibo honek. Kalitatezko garagardoak eta sozialki arduratsuak egiteaz gain, eragile aktibo izateko lan egiten du.

**CASAL POPULAR BOIRA BAIXA** DE MANLLEU

Gazte-talde honek gizarte-gune bat dinamizatzen du, kultura eta hizkuntza katalana sustatzeko, ekonomia sozial eraldatzailea bultzatzeko, arrazakeriarik, matxismorik eta LGTBIfobiarik gabeko gunea izateko.

ASSOCIACIÓ CULTURAL **LA SÈPIA VERDA**

Sabadell udalerriko entitate kultural eta soziala da, hiriko gizarte- eta herri-mugimenduei lotua, musikari, txangozaletasunari eta arteari lotutako interesak dituen gazte-talde batek sortua.

# 11.398.743 €
## EMANDAKO MAILEGUETAN

### COOPERATIVA LES REFARDES, SCCL

Kooperatiba honek haziak lortzen lan egiten du, baratzerako, ongarrietarako eta loretarako tokiko 300 mota eskaintzen ditu, ziurtatutako barazki ekologikoak eta gertukoak saltzeko.

### ASSOCIACIÓ PER AL DESENVOLUPAMENT INTEGRAL DE LA VALL DEL CORB

Elkarte honek Vall de Corb-eko ekoizleak, langileak, artisauak, ostalariak eta landa-ostatuak biltzen ditu.

### ALIA, ASSOCIACIÓ CULTURAL DE DONES PER A LA RECERCA I L'ACCIÓ

Alia elkartearen helburua da ezagutza sustatzea eta gizartearen eraldaketa feminista bultzatzea, ikuspegi intersekzionala oinarri.

### EL SOTERRANI LLIBRERIA COOPERATIVA, SCCL

Autoenplegurako proiektu kulturala da, lanbide horretan duintasunez bizitzea helburu duena. Hainbat kultura-jarduera egiteko espazioa ere da.

### ASSOCIACIÓ CULTURAL ULL PER ULL

Rubí udalerriko La Nuu Argazkilaritzako Nazioarteko Jaialdiaren ondotik sortu zen elkarte hau. Egile-argazkilaritza herritarrengana hurbiltzea du helburu.

### COOPERATIVA ABARKA, SCCL

Migratzaile eta arrazializatuak lan-munduan zein gizarte-eremuan gastronomiaren bidez antolatzeko beharraren ondorioz jaio zen kooperatiba hau, aukerak sortzeko tresna izan dadin.

### COOPIVOLTA, SCCL

Etxebizitza-, erabiltzaile- eta kontsumo-kooperatiba integrala da. Eraikin bat eskuratu, higiezinen merkatutik atera eta etxebizitza-eredu kooperatiboagoa, jasangarriagoa eta komunitarioagoa sortzea du helburu.

### CUCHARA ASSOCIACIO D'EMANCIPACIÓ ALIMENTARIA

Entitate honen helburua da sukaldaritza bizitzen erdigunean jartzea, maiz elikagai-industrianen esku uzten baita.

### ECONOMAT LA GUILLA, SCCL

Kooperatibaren helburua da kontsumo arduratsua, bidezkoa eta komunitarioa sustatzea, ingurua errespetatuz, eta gertuko eta solteko produktu agroekologikoak saltzeko denda bat irekitzea.

### FEDERACIÓ ALLEM

Lleidako eskualdeetan adimen-desgaitasuna duten pertsonei laguntzeko irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeen federazioa da.

### FUNDACIÓ PRIVADA AAVC- HANGAR

Sortzaileei eta artistei laguntzeko ikerketa eta ekoizpen artistikorako zentro irekia da.

### GER, ENTITAT CULTURAL I ESPORTIVA

Sant Pere de Ribes udalerriko herri-entitatea da. Jarduera politikoa, kulturala eta soziala sustatzeko espazioa da.

### GIRASOL RECURSOS EN ENERGIES RENOVABLES, SCCL

Energia berriztagarriko sistemak jartzen eta horien mantentze-lanak egiten dituen kooperatiba da.

### GRUPDEM, SCCL

Adimen-desgaitasuna duten pertsonak eta bazterketa-arriskuan dauden beste kolektiboak laguntzen ditu kooperatiba honek. Haien bizi-kalitatea eta gizarteratzea hobetzea du helburu.

### LA SEMBRA, SCCL

Gizarte-komunikazioko agentzia da, eta parte-hartze eta ikuspegi estrategiko bidez sortutako komunikazio-zerbitzu jasangarriak eskaintzen ditu.

### LA TARTANA DE CAN BOFILL, SCCL

Erabilera-lagapeneko etxebizitza-kooperatiba da, baita kontsumitzaile- eta erabiltzaile-kooperatiba ere, eta Can Bofill proiektu komunitarioaren parte da.

### GIRAVOLT, SCCL

Migratzaile gazteak zirkuaren arteen bidez gizarteratzeko asmoz lan egiten du kooperatibak. Lehenengo lan-esperientzia eskaintzen die, eta balio kooperatiboak helarazi.

### LA TEULADA COOPERATIVA, SCCL

Erabilera-lagapeneko etxebizitza-kooperatiba da. Helburua da Terrassako etxebizitza-arlora ekonomia sozial eraldatzailearen printzipioak hedatzeko proiektua garatzea.

### LLIBRERIA FAHRENHEIT 451, SCCL

Liburu-denda independente honen helburua da komunitatean ezagutza eta kultura zabaltzea.

### LUDIK CONCILIA, SCCL

Haurrak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko lan egiten du kooperatiba honek. Horretarako, eredu inklusiboago eta bidezkoagoa lortzeko kontziliazioa sustatzen du, denbora hobeto erabiltzeko.

### ORIOL AGUAYO (CAN BOFILL)

Can Bofill proiektuarekin lotura duen langile autonomoa da. Abeltzaintza ekologikoko proiektu bat garatzea du helburu, ekoizpen eta kontsumo agroekologikorako PACA sarearen baitan.

### SERV-EÏNES COOPERATIVES, SCCL

Kooperatiba honek komunitateei eta partikularrei zerbitzuak eskaintzen dizkie administrazioaren eremuan, aholkularitza juridikoan edo etxez etxeko arretan.

### SOM ECOLOGÍSTICA, SCCL

Mezularitza jasangarriko proiektuak, ziklologistikoak eta mezularitzaren sektoreko beste enpresa batzuk biltzen ditu kooperatiba honek.

### TERCER PRIMERA, SCCL

Diseinu grafikoa, barnealdeen diseinua eta instalazio efimeroak eskaintzen ditu kooperatiba honek. Tarragonako Terra Alta eskualdean daude kokatuta eta tokiko beste entitateekin interkooperatzen dute.

## MAILEGU BERRIAK

### AGIPCAT
**20.000 €** ALTXORTEGIA

Herrialde Katalanetako ijito-entitateen elkartea. Entitatearen altxortegi-arazoak finantzatuko ditu maileguak.

### ASSOCIACIÓ BARCELONETA ALERTA
**50.000 €** ALTXORTEGIA

Auzokideen ahaldunztea eta antolaketa komunitarioa helburu duen entitatea. Entitatearen altxortegi-arazoak finantzatuko ditu maileguak.

### ASSOCIACIÓ CULTURAL LA SÈPIA VERDA
**60.000 €** LOKALAK

Sabadell udalerriko entitate kultural eta soziala da, herri-mugimenduekin lotura duena. Entitatearen egoitza sozial berria erosten lagunduko du maileguak.

### ASSOCIACIÓ ENTREMARES
**4.000 €** ALTXORTEGIA

Cornellà de Llobregateko entitate honek familientzako zentro integral bat kudeatzen du, amatasuna eta hazkuntza eta familia-osasuna laguntzeko. Entitatearen altxortegi-arazoak finantzatuko ditu maileguak.

### ASSOCIACIÓ SERVEIS ENERGÈTICS BÀSICS AUTÒNOMS - SEBA
**24.500 €** ENERGIA

Sistema fotovoltaikoak diseinatu, instalatu, mantendu eta kudeatzen ditu elkarte honek. Pirinio Garaiko Parke Naturalean dagoen Valferrerako mendi-aterpeko instalazio fotovoltaikoak berritzen lagunduko du maileguaku.

### ASSOCIACIÓ LA BARRAQUETA
**10.000 €** INBERTSIOA

Espazio politikoa eta topalekua da, kolektiboki eraiki eta pentsatzeko. Lokalaren egokitzapen txikiekin lotutako inbertsioak finantzatuko ditu maileguak.

## CASAL POPULAR BOIRA BAIXA DE MANLLEU

**150.000 €** LOKALAK

Kultura eta hizkuntza katalana sustatzeko helburuz sortutako espazioa da. Kolektiboki eskuratutako lokala birgaitzeko lanak finantzatuko ditu maileguak.

## EDUVIC, SCCL

**12.000 €** KAPITALIZAZIOA

Gizarte-bazterketa arriskuan dauden nerabe eta gazteei arreta emateko zerbitzu espezializatuak eskaintzen ditu. Bi mailegu eman zaizkie langileen kapitalizazioan laguntzeko.

## LLARS FAMILIARS HSJ, SCCL

**279.756 €** ETXEBIZITZA

Ekimen sozialeko etxebizitza-kooperatiba honek bizitegi-bazterketa jasaten duten eta bereziki zaurgarriak diren familientzako etxebizitzak bilatzeko lan egiten du. Kooperatibaren etxebizitza bat egokitzeko inbertsioak finantzatuko ditu maileguak.

## METZINERES, SCCL

**20.000 €** INBERTSIOA

Kooperatiba honek, giza eskubideetan eta genero-zeharkakotasunean oinarrituta, esku-hartze eredu berritzaile eta ausarta garatzen du, estrategia komunitarioek lagunduta. Entitatearen lokal berria egokitzeko lanak finantzatuko ditu maileguak.

## LA BRANDA DESTIL·LERIA, SCCL

**110.000 €** LOKALAK

Kalitate handiko destilatuak egiten ditu kooperatiba honek, eta ekojasanagarritasuna eta gertuko ekoizpena ditu balio nagusi. Jarduera egiteko beharrezkoa duten makineria erosten lagunduko du maileguak.

## CAN FERRIOL. LA RURAL DE COLLSEROLA

**105.000 €** ALTXORTEGIA

Erabilera-lagapeneko etxebizitza-kooperatiba feminista. Maileguaren bidez, etxebizitza eraiki duen enpresak igorritako fakturen BEZ aurreratuko da.

## DIRU-LAGUNTZAK ETA FAKTURAK AURRERATZEA KATALUNIA

**43** MAILEGU, **2.560.948 €** GUZTIRA

| entitatea | zenbatekoa | finantzatzailea | arrazoia |
|---|---|---|---|
| ASSOCIACIÓ **ADEFFA** | **11.000 €** | Kataluniako Generalitatea | Biodibertsitatea zaintzea |
| ASSOCIACIÓ **ADEFFA** | **15.000 €** | Kataluniako Generalitatea | Ingurumen-sentsibilizazioa |
| **AGIPCAT** | **21.590 €** | Kataluniako Generalitatea | Ijito-herriaren aitortza |
| ASSOCIACIÓ CULTURAL **NAU BOSTIK** | **15.000 €** | Bartzelonako Udala | Ekintza Komunitarioa |
| ASSOCIACIÓ CULTURAL **ULL PER ULL** | **17.000 €** | Kataluniako Generalitatea | Argazkilaritza Soziala |
| ASSOCIACIÓ **L'ECONAU** | **29.792 €** | Kataluniako Generalitatea | Nekazaritzako elikagaien lantegiak sortzea |
| ASSOCIACIÓ **OBERTAMENT** | **250.000 €** | Kataluniako Generalitatea | Osasun mentalaren estigmaren aurkako borroka |
| ASSOCIACIÓ **PANORAMA 180** | **17.600 €** | Kataluniako Generalitatea | Kultura eta ikus-entzunezko askea |
| ASSOCIACIÓ **PLÀUDITE TEATRE** | **30.000 €** | Bartzelonako Diputazioa | Arte Eszenikoak |
| ASSOCIACIÓ **PUNT DE REFERÈNCIA** | **61.000 €** | Bartzelonako Udala | Ekintza Komunitarioa |
| ASSOCIACIO **UPEC** | **20.000 €** | Bartzelonako Diputazioa | Herri Hezkuntza |
| **BICICLOT**, SCCL | **50.000 €** | Kataluniako Generalitatea | Hondakinen berrerabilpena |
| **CENTRE D'ESTUDIS DE L'HOSPITALET** | **10.000 €** | Hospitaleteko Udala | Ekimen soziokulturalak |
| **COOP. POPULAR DE VENDEDORES AMBULANTES DE BCN**, SCCL | **60.000 €** | Kataluniako Generalitatea | Lan-munduratzea eta moda jasangarria |
| **CREARSA**, SCCL | **15.000 €** | Kataluniako Generalitatea | Kooperatibismoari eta ESEri laguntza |
| **EH COOP** SCCL | **47.920 €** | Kataluniako Generalitatea | Kultura herrikoia eta eraldatzailea |
| **ESPAI BROTES**, SCCL | **30.000 €** | Hospitaleteko Udala | Osasuna eta zaintza |
| **ESPAI BROTES**, SCCL | **22.000 €** | Kataluniako Generalitatea | ACOL programa |
| **FAGIC** | **111.882 €** | Kataluniako Generalitatea | Dinamizazio Komunitarioa |
| **FIT TEXTIL** | **133.000 €** | Kataluniako Generalitatea | Lan-munduratzea eta gizarteratzea |
| **FLECA L'ARESTA**, SCCL | **135.000 €** | Kataluniako Generalitatea | Kooperatibismoari eta ESEri laguntza |
| **FORMACIÓ I TREBALL** | **267.000 €** | Kataluniako Generalitatea | Lan-munduratzea eta gizarteratzea |
| FUNDACIÓ **ELS 3 TURONS** | **84.427 €** | Kataluniako Osasun Zerbitzua | Integrazioa eta osasun mentala |
| FUNDACIÓ **ELS 3 TURONS** | **180.605 €** | Kataluniako Generalitatea | Osasun mentalaren sustapena |
| **FUNDACIÓ EMYS** | **29.958 €** | Kataluniako Generalitatea | Tokiko salmentaren sustapena |
| FUNDACIÓ **INTERMEDIA** | **150.000 €** | Kataluniako Generalitatea | Lan-munduratzea eta gizarteratzea |
| FUNDACIÓ **PERE MITJANS** | **113.000 €** | Kataluniako Generalitatea | Egoitza-kudeaketa |
| FUNDACIÓ PRIVADA **ARED** | **150.000 €** | Kataluniako Generalitatea | Egoitza-asistentzia |
| **GEVEN** | **18.000 €** | Tarragonako Diputazioa | Ingurumenaren babesa |
| **L'ESGUARD** SCCL | **65.247 €** | Bartzelonako Udala | Aisialdiko hezkuntza |
| **LA BRANDA DESTIL·LERIA**, SCCL | **50.323 €** | Kataluniako Generalitatea | Nekazaritzako elikagaien lantegiak sortzea |
| **LA SOBIRANA**, SCCL | **20.632 €** | Kataluniako Generalitatea | Nekazaritzako elikagaien lantegiak sortzea |
| **LUDIK CONCILIA** SCCL | **25.000 €** | Kataluniako Generalitatea | Kontziliazioa eta zaintzak |
| **MARTINET SOLIDARI** | **20.000 €** | Bartzelonako Udala | Esku-hartze komunitarioa |
| **METZINERES**, SCCL | **85.000 €** | Kataluniako Generalitatea | Droga-mendekotasunaren prebentzioa |
| **ORATGE ASSOCIACIÓ** | **40.000 €** | ASPASIM | Aisialdiko jarduerak |
| **PERIFERIA CIMARRONXS**, SCCL | **6.193 €** | Kataluniako Generalitatea | Arte eszenikoak eta bisualak |
| **SIDA STUDI** | **49.795 €** | Kataluniako Generalitatea | GIBaren prebentzioa |
| **TERRITORI DE MASIES COOP**, SCCL | **24.000 €** | Kataluniako Generalitatea | Landa garapena |
| **TERRITORI DE MASIES COOP**, SCCL | **32.000 €** | Kataluniako Generalitatea | Landa garapena |
| **TOT RAVAL**, FUNDACIÓ PRIVADA | **40.000 €** | Bartzelonako Udala | Ekintza Komunitarioa |
| **TRES CADIRES**, SCCL | **26.983 €** | Kataluniako Generalitatea | Nekazaritzako elikagaien lantegiak sortzea |
| **XES** | **70.000 €** | Kataluniako Generalitatea | Ekonomia eraldatzailearen sustapena |

## KREDITU-POLIZAK KATALUNIA

**60** POLIZA, **4.726.500 €** GUZTIRA

**ANDROMINES** EINES ASSOLIDES | **ÀÓ** COOP, SCCL | **ARRELS** FUNDACIÓ | ASSOCIACIÓ **30DEFEBRER** | ASSOCIACIÓ **CEHDA** | ASSOCIACIÓ **CENTRE D'ESTUDIS DE L'HOSPITALET** | ASSOCIACIÓ COL·LECTIVA AUDIOVISUAL PER A LA TRANSFORMACIÓ SOCIAL **ACATS** | ASSOCIACIÓ D'ACOLLIDA I ACCIÓ TERAPÈUTICA (**AAT**) | ASSOCIACIÓ DE MITJANS D'INFORMACIÓ I COMUNICACIÓ (**AMIC**) | ASSOCIACIÓ DE **PLANIFICACIÓ FAMILIAR DE CATALUNYA I BALEARS** I ASSOCIACIÓ **FLORESTINA** AMICS DE LA CERVESA I ASSOCIACIÓ **HABITATS** I ASSOCIACIÓ **IRÍDIA**, CENTRE PER LA DEFENSA DELS DRETS HUMANS I ASSOCIACIÓ **ÒMNIUM CULTURAL** I ASSOCIACIÓ PER LA MEDIACIÓ INTERCULTURAL I SOCIAL AMB IMMIGRANTS (**AMISI**) I ASSOCIACIÓ **S.O.S RACISME CATALUNYA** I ASSOCIACIÓ SOCIOEDUCATIVA **NOUSOL** I ASSOCIACIÓ **STOP SIDA** I ASSOCIACIÓ **TELER COOPERATIU** I **BARABARA EDUCACIÓ**, SCCL I **BICICLOT**, SCCL I **BOREAL COMUNICACIÓ ACCESSIBLE**, SCCL I **CASAL DELS INFANTS** PER A L'ACCIÓ SOCIAL ALS BARRIS I **CELOBERT** ARQUITECTURA, ENGINYERIA I URBANISME, SCCL I **CIERTO ESTUDIO**, SCCLP I COMITÈ **1R DE DESEMBRE** I **CONSELL DE LA JOVENTUT DE BARCELONA** I COOPERATIVA DE TREBALLADORES **LA RURAL** I **COS, COOPERACIÓ I SALUT**, SCCL I **CUCHARA** ASSOCIACIÓ D'EMANCIPACIÓ ALIMENTÀRIA I **DIOMCOOP**, SCCL I **EDUXARXA**, SCCL I **EL TIMBAL**, CENTRE DE FORMACIÓ i CREACIÓ ESCÈNICA, SCCL I FEDERACIÓ D'**ENTITATS AMIGUES DE CAN CAROL i CONSOLAT** I FEDERACIÓ **SALUT MENTAL DE CATALUNYA** I **FORESTERRA** SCCL I FUNDACIÓ PRIVADA **EMYS** I **GRUP DE PERIODISTES RAMON BARNILS** I **INSERCOOP**, SCCL I **IQ COOP**, SCCL I **LA DINAMO** FUNDACIO I **LA FEIXA** SCCL I **LA PRODUCTORA**, SCCL I **LA SOBIRANA**, SCCL I **LA TREMENDA**, SCCL I **LABAULA ARQUITECTES**, SCCLP I **LACOL**, SCCL I **MAGRANES**, SCCL I **MISSATGERS TRÈVOL**, SCCL I **NOU INDRET**, SCCL I **OBERTAMENT**, ASSOCIACIÓ CATALANA PER A LA LLUITA CONTRA L'ESTIGMA EN SALUT MENTAL I **ORTHEMIS** SCCL I **RAONS PÚBLIQUES**, SCCL I **SOM ECOLOGÍSTICA** SCCL I **SPORA SINERGIES**, SCCL I **SURT**. FUNDACIÓ DE DONES I **TERCER PRIMERA**, SCCL I **TERRA D'ESCUDELLA** PRODUCCIONS GASTRONÒMIQUES I CULTURALS, SCCL I **VIRA** COOPERATIVA FEMINISTA, SCCL I **VOLTES** COOPERATIVA D'ARQUITECTURA, SCCL

### ESCOLA GREGAL, SCCL
**38.700 €** ALTXORTEGIA

Besòs inguruan jantoki solidarioa kudeatzen duen kooperatiba. Entitatearen altxortegi-arazoak finantzatuko ditu maileguak.

### FEDERACIÓ CATALANA DE VOLUNTARIAT SOCIAL
**23.000 €** INBERTSIOA

Boluntariotza sozialeko erreferentziazko plataforma Katalunian. Maileguak egoitza berriaren klimatizazioa eta ekipamendu informatikoak hobetzea finantzatuko du.

### FLAMA ROJA, SCCL
**5.000 €** ALTXORTEGIA

Ateneu Popular Can Capablancako jatetxea kudeatzen du kooperatiba honek. Entitatearen altxortegi-arazoak finantzatuko ditu maileguak.

### SOSTRE CÍVIC, SCCL
**86.362 €** ENERGIA

Erabilera-lagapeneko etxebizitza-kooperatiba. Maileguaren bidez, Bartzelonako Princesa kaleko 49 zenbakiko eraikinaren efizientzia eta energia-aurreztea hobetzea finantzatuko da.

### TARADELL SOSTENIBLE, SCCL
**52.350 €** ALTXORTEGIA

Erabilera-lagapeneko etxebizitzan espezializatutako kooperatiba feminista. Maileguaren bidez, etxebizitza eraiki duen enpresak igorritako fakturen BEZ aurreratuko da.

### LA KONTRA VDG
**190.000 €** LOKALAK

Gràcia auzoko lokal bat kudeatzen duen kooperatiba da, kultura-programazio kritikoa eta kalitatezkoa eskaintzea xede. Lokala abiarazteko beharrezkoak dituzten inbertsioak finantzatuko ditu maileguak.

### FUNDACIÓ PRIVADA CORAVANT. CARDIOPATIES CONGÈNITES
**16.568 €** ALTXORTEGIA

Kardiopatia duten pertsonen arreta psikosoziala bermatzeko lan egiten du fundazio honek. Entitatearen finantza-egitura berrantolatzen lagunduko du maileguak.

### LA RENEGÀ COOPERATIVA FEMINISTA
**137.000 €** ALTXORTEGIA

Erabilera-lagapeneko etxebizitza-kooperatiba feminista. Maileguaren bidez, etxebizitza eraiki duen enpresak igorritako fakturen BEZ aurreratuko da.

### LLIBRERIA FAHRENHEIT 451, SCCL
**35.000 €** INBERTSIOA

Komunitatean kultura sustatzeko liburu-denda independentea. Liburu-denda abiarazteko inbertsioak finantzatuko ditu maileguak.

### POL·LEN EDICIONS, SCCL
**15.000 €** INBERTSIOA

Argitaletxe independentea, kooperatiboa eta ekintza eraldatzailerako pentsamendu kritikoko liburuak editatzen espezializatua. 2023ko azken hiruhileko argitaratze-plana finantzatuko du maileguak.

### NOU VERD, SCCL
**85.000 €** LOKALAK

Adimen-desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea Laneko Zentro Berezi baten bidez sustatzen duen kooperatiba da. Entitatearen lokal bat egokitzeko lanak finantzatuko ditu maileguak.

### SOCIAL PROJECT 4.0
**15.000 €** ALTXORTEGIA

Iritsi berriak diren pertsonen harreran lan egiten du elkarte honek, herrien arteko errespetua eta elkartasuna sustatuta. Entitatearen altxortegi-arazoak finantzatuko ditu maileguak.

### GESTIÓ DE PUBLICACIONS LOCALS, SCCL
**20.000 €** ALTXORTEGIA

20 urte baino gehiagoko esperientzia duen komunikazio-kooperatiba da. Udako hiletako altxortegi-arazoak finantzatuko ditu maileguak.

### LA TEULADA COOPERATIVA, SCCL
**73.600 €** LOKALAK

Erabilera-lagapeneko Terrassako etxebizitza-kooperatiba. Lurzoru publikoaren gaineko azalera-eskubidea eratzeko beharrezko bermea finantzatuko du maileguak.

## EUSKAL HERRIA

**6** ZERBITZU BAZKIDE BERRI

**6** MAILEGU BERRI

EMANDAKO MAILEGU BERRIAK, GUZTIRA

**114.450 €**

### ZERBITZU-BAZKIDE BERRIAK

### BASAJAUN ELKARTEA

Elikadura-burujabetza sustatzen du entitate honek eta, horretarako, auzoetan sukalde komunitarioak antolatzen ditu modu autonomo eta kolektiboan. Helburua da sukalde komunitarioen konfederazioa eratzea.

### BIOLUR

Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoko elkartea da, eta landa-munduan errotzeko lan egiten du, elikagai osasungarriak eta ingurunea errespetatzen dutenak ekoizteko.

### EIHERA

Eraldaketa feminista eta LGTBI prozesu propioak diseinatu, garatu eta ahalbidetzen dituen kooperatiba da.

### ETXALDE

Iparraldeko entitate honek etxebizitza inklusiboa sustatzen du, jabetza kolektiboko eta erabilera indibidualeko eredua azpimarratzen du, erantzunkidetasun kolektiboa ardatz.

### OINHERRI

Aisialdi eta kulturaren arloko elkarte komunitarioa da. Dibertsitatea, ingurumenarekiko errespetua eta haurren parte hartzeko ahalmena ditu oinarri.

### ZAPALAN ELKARTEA

Lagundu gabeko adingabe atzerritarrek adin nagusitasuna bete ondoren dituzten bizitegi-, prestakuntza-, lan- eta gizarte-beharrizanei erantzuna ematea du helburu entitate honek.

### MAILEGU BERRIAK

### AIARALDEA KOOPERATIVA ELKARTEA
**32.287 €** DIRU-LAGUNTZAK

Komunikazio eta kultura alorrean lan egiten du entitate honek, eraldaketa sozialerako prozesuak xede. Laudioko Udalaren fakturak aurreratuko ditu maileguak.

### BASAJAUN ELKARTEA
**5.000 €** KREDITU-POLIZA

Elikadura-burujabetza sustatzen du entitate honek eta, horretarako, auzoetan sukalde komunitarioak antolatzen ditu modu autonomo eta kolektiboan. Entitatearen likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

### IRULE ZERBITZU JURIDIKO ETA PSIKOSOZIALA KOOP. ELK. TXIKIA
**10.000 €** KREDITU-POLIZA

Zerbitzu juridikoak eta psikosozialak ikuspegi feminista oinarri hartuta eskaintzen dituen kooperatiba da. Entitatearen likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

### ZAPALAN ELKARTEA
**22.163 €** DIRU-LAGUNTZAK

Lagundu gabeko adingabe atzerritarrek adin nagusitasuna bete ondoren dituzten beharrizanei erantzuna ematea du helburu entitate honek. Maileguaren bidez, Trapezistak programan parte hartzeko falta dena aurreratuko da.

### KAXILDA KOOP. ELK. TXIKIA
**15.000 €** KREDITU-POLIZA

Liburu-denda, jatetxea, elkargune eta eztabaida-gunea Donostian. Entitatearen likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

### AZTIKER KOOP ELK TXIKIA
**30.000 €** KREDITU-POLIZA

Komunitatearen parte-hartzerako eta garapenerako aholkularitza, eta bitartekaritzako eta gatazkak konpontzeko zerbitzuak eskaintzen ditu kooperatiba honek. Entitatearen likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

## GALIZA

**5** ZERBITZU BAZKIDE BERRI

**18** MAILEGU BERRI

EMANDAKO MAILEGU BERRIAK, GUZTIRA

**507.021 €**

### ZERBITZU-BAZKIDE BERRIAK

### AILURO S. COOP. GAL. XUVENIL

Kafetegi honetan, kaletik erreskatatutako katuekin batera egiten dira bezeroak. Komunitatearekin, ingurumenarekin eta animalien ongizatearekin konprometitutako espazioa da.

### ASOCIACIÓN FAGAMOS

Guraso bakarreko familia-eredua aintzat hartzea eta ekitatez tratatzea helburu duen entitatea. Familiak eta, batez ere, guraso bakarreko familiak babesteko gizartearen erantzunkidetasunak duen garrantziaren inguruan kontzientziatzeko sortu zen.

### ENRAIZANDO, S. COOP. GALEGA

Ribeirako kooperatiba honek zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonentzako esku-hartze sozialeko proiektuak egiten ditu.

### MALA HERBA PRODUCCIÓNS S. COOP GALLEGA XUVENIL

Ikus-entzunezko ekoizpenak eta edukiak egiten ditu kooperatiba honek. Fikziozko lanak ekoiztu eta zinema-jaialdiak antolatzen dituzte, beste hainbat jardueren artean.

### NOSO PLANS E PROXECTOS S. COOP. GALEGA

Vigoko kooperatiba honek gizarte-zientziako, arkitekturako eta ikus-entzunezko proiektuak sustatzen ditu. Gizarte-, kultura- eta lurralde-garapena dute helburu.

### MAILEGU BERRIAK

### ENRAIZADO S. COOP. GALEGA
**16.084 €** DIRU-LAGUNTZAK

Gizarte-, laguntza- eta osasun-zerbitzuen arloan lan egiten du kooperatiba honek. Esku-hartze sozialeko proiektuetarako diru-laguntza aurreratuko du maileguak.

### ASOCIACIÓN AROUSA EN TRANSICIÓN

**23.411 €** DIRU-LAGUNTZAK
**10.000 €** ENERGIA

Illa d'Arousan energia berriztagarrietarantz egiteko trantsizioa sustatzen du entitate ekologista honek. Instalazio fotovoltaiko bat eta ibilgailu elektrikoentzako kargagailu bat martxan jartzeko bi mailegu jaso ditu.

### ASOCIACION ARRAIANAS

**30.149 €** DIRU-LAGUNTZAK

Justizia sozialaren eta giza eskubideen arloan lan egiten du elkarte honek, eta arreta berezia eskaintzen die migratzaile eta emakumeei. Esku-hartze sozialeko proiektuetarako diru-laguntza aurreratuko du maileguak.

### MULLERES COLLEITEIRAS S. COOP. GALEGA

**15.000€** INBERTSIOA

Etxeko olioaren birziklapenaren bitartez gizarte-bazterketa egoeran dauden emakumeak lan-merkatuan txertatzea helburu duen lan-kooperatiba da. Hainbat materialetan inbertitzeko finantzatuko du mailegua.

### ASOCIACIÓN FAGAMOS

**100.000 €** DIRU-LAGUNTZAK

Guraso bakarreko familia-eredua aintzat hartzea eta ekitatez tratatzea helburu duen entitatea. Guraso bakarreko familien kontziliazioa sustatzeko baliabideak eta zerbitzuak garatzeko diru-laguntza bat aurreratuko du maileguak.

### ARDORA FORMACION Y SERVICIOS S. COOP. GALEGA

**50.000 €** KREDITU-POLIZA

Gaitasun profesionalak hobetzeko eta prozesu parte-hartzaileak laguntzeko aholkularitza- eta prestakuntza-proiektua da. Entitatearen likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

### CONSUMO CONSCIENTE ARBORE S. COOP. GALEGA

**28.496 €** INBERTSIOA

Gertuko produktu ekologikoen kontsumo-kooperatiba da. Dendarako hainbat inbertsio finantzatuko ditu maileguak.

### MALA HERBA PRODUCIÓNS S. COOP. GALEGA XUVENIL

**22.000 €** DIRU-LAGUNTZAK

Ikus-entzunezko ekoizpenak eta edukiak egiten ditu kooperatiba honek. Ikus-entzunezko proiektuak egiteko diru-laguntza baten zenbatekoa aurreratuko du maileguak.

### FLYING FUN S. COOP. GALEGA

**6.000 €** KAPITALIZAZIOA

Ingelesa ikasteko hezkuntza-proiektuak garatzen ditu kooperatiba honek, pentsaera kritikoa ardatz. Maileguaren bidez, kooperatibako bi bazkideren kapitalizazioa sustatuko da.

### AILURO CAT CAFÉ S. COOP. GALEGA XUVENIL

**16.380 €** INBERTSIOA

Katuei harrera ematen die kafetegi honek eta, gainera, katuak adoptatzeko bitartekaria da. Jarduera abiarazteko inbertsioak finantzatuko ditu maileguak.

### SUSEIA S. COOP. GALEGA

**26.000 €** KREDITU-POLIZA

Telebistako saioak eta ikus-entzunezko ekoizpenak egiten ditu kooperatiba honek. Entitatearen likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

### MIUDIÑO S. COOP. GALEGA

**15.000 €** KREDITU-POLIZA

Hiru alderdi uztartzen ditu entitate honek: haurrak, natura eta kultura-ondarea. Entitatearen likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

### NOSO S. COOP. GALEGA

**30.000 €** KREDITU-POLIZA

Tokiko garapenerako eta lurraldea biziberritzeko kultura-estrategia eta -proiektu berritzaileak. Entitatearen likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

### O CABLE INGLÉS S. COOP. GALEGA

**9.000 €** KREDITU-POLIZA

Kultura-proiektuen beharrizanei erantzun integrala ematen die kooperatiba honek. Entitatearen likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

### CATRO VENTOS S. COOP. GALEGA

**10.000 €** KREDITU-POLIZA

Ekonomia sozialean eta ekologian espezializatutako argitaletxea da. Entitatearen likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

### REAS GALICIA

**99.500 €** DIRU-LAGUNTZAK

Galiziako ekonomia eraldatzaileko sarea. Turismo arduratsua sustatzeko Merkataritza eta Turismo Ministerioaren diru-laguntza bat aurreratuko du maileguak.

## MADRIL

**5** ZERBITZU BAZKIDE BERRI

**5** MAILEGU BERRI

EMANDAKO MAILEGU BERRIAK, GUZTIRA

**442.000 €**

### ZERBITZU-BAZKIDE BERRIAK

### ASOCIACIÓN DEBATES Y SOLIDARIDAD

Ekintza solidariorako eta gizarte-eraldaketarako pentsamendu kritikoa eta ideiak sortzea sustatzen du elkarte honek.

### ASOCIACIÓN LANERAS

Hervaseko (Cáceres) entitatea da, eta xede du Extremaduran merino-artilea berriz balioan jartzea

### ELEVENTH FLOOR

Ikus-entzunezko edukiak eta ekoizpenak egiten ditu estudio honek: dokumentalak, sare sozialetarako eduki-estrategiak edo podcastak.

### GRUPO ECOJERTE

Zerbitzu-kooperatiba honek fruta, gaztak eta esnekiak ekoizten ditu. Agroekologiarekin lotutako ikerketa-proiektuak ere egiten ditu.

### INICIATIVAS SOCIOAMBIENTALES G, S. COOP. MAD.

Irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko kooperatiba da, eta ikerketa eta aholkularitza, ekintzailetzari laguntzea, prestakuntza, sentsibilizazioa eta ezagutza hedatzea eskaintzen ditu.

### MAILEGU BERRIAK

### ACTYVA S. COOP. CÁCERES

**70.000 €** KREDITU-POLIZA

Cácereseko kooperatiba integrala da, tokiko ekonomia eta nekazaritza-ekoizpena sustatzen ditu. Kooperatibaren likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

### AGRESTA S. COOP. MAD.

**300.000 €** KREDITU-POLIZA

Baso-aholkularitzan aritzen da kooperatiba hau, eta sektorearekin lotutako era guztietako proiektuak egiten ditu. Kooperatibaren likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

### ABIERTO HASTA EL AMANECER S. COOP. MAD.

**20.000 €** KREDITU-POLIZA

Ekintzaileetzako eta laneratze eta gizarteratzeko zerbitzuak eskaini eta programak garatzen ditu kooperatiba honek. Entitatearen likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

### DABNE, TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN, S. COOP. MAD

**12.000 €** ALTXORTEGIA

Feminismotik eta ekonomia eraldatzaileetik software libreko proiektuetan espezializatutako kooperatiba teknologikoa da. Kooperatibaren likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

### FREEPRESS S. COOP. MAD.

**40.000 €** KREDITU-POLIZA

Gizarte-aldaketarako komunikazio-kooperatiba da, pertsonak eta ingurumena ardatz hartuta. Kooperatibaren likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

## MALLORCA

**1** MAILEGU BERRI

EMANDAKO MAILEGU BERRIAK, GUZTIRA

**14.167 €**

### MAILEGU BERRIAK

### SUSCULTURA, S. MICROCOOP

**14.167 €** DIRU-LAGUNTZAK

Palmako kultura-entitatea, prestakuntza- eta aisialdi-jarduerak kudeatu eta antolatzen ditu. Landa-garapenerako FOGAIBAren diru-laguntza bat aurreratuko du maileguak.

## PAÍS VALENCIÀ

**4** MAILEGU BERRI

EMANDAKO MAILEGU BERRIAK, GUZTIRA

**290.000 €**

### MAILEGU BERRIAK

### ASOCIACIÓN KOLECTIVO JOVENES PARKE

**110.000 €** DIRU-LAGUNTZAK

Zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen eskubideak defendatzen dituen proiektu komunitarioa. Haurrentzako gizarte-zerbitzuak eskaintzeko Valentziako Generalitatearekin sinatutako hitzarmena aurreratuko du maileguak.

### TECNINAU COOPERATIVA VALENCIANA

**50.000 €** DIRU-LAGUNTZAK

Itsas teknikarien kooperatiba da, eta nautika-jardueretan eskolak, ikastaroak eta prestakuntza ematen dituzte. Valentziako Generalitatearen Escoles de la Marren fakturak aurreratuko ditu maileguak.

### TRANSVERSAL, COOP. V.

**30.000 €** KREDITU-POLIZA

Komunikazioa, herritarren parte-hartzean eta politika publikoen diseinuan prestakuntza eta laguntza eskaintzen ditu kooperatiba honek. Kooperatibaren likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

### XICOTETA ENERGIA, COOP. V.

**100.000 €** KREDITU-POLIZA

Ingeniaritza, instalazio, ekoizpen eta efizientzia energetikoko Valentziako kooperatiba da. Kooperatibaren likidezia-beharrak finantzatuko ditu maileguak.

MARINALEDA

COOP57ko ZERBITZU-BAZKIDEAK / MARINALEDA ANDALUZIA




# Marinaleda, utopia-lurraldea

**Marinaleda proiektu kooperatiboa zortzi kooperatiba hauek osatzen dute: El Ciervo | Hierbabuena | Los Moledores | Los Jornaleros | Domingos Rojos | Los Compañeros | Camilo Cienfuegos | Tierra, Trabajo y Libertad. Bigarren mailako kooperatiba kudeatzen dute guztiek, eta, udalerriak bezala, Marinaleda du izena. 2.500 biztanletik gorako Andaluziako herri honetan dauden hamar kooperatibetatik bederatzi Coop57ko bazkideak dira**

Marinaledako esperientzia kooperatiboa herriko jornalarien mobilizazioen ondorioz sortu zen. Urte luzez borrokan nekaezin aritu ondoren, lursail batzuk lortu zituzten –ordura arte, lugorriak–, beren eskuekin lan egiteko, fruituak ematen hasi zen arte. Herrian lanpostuak sortzeko helburuarekin, merkatu lehiakorrean bidea irekitzea zen hurrengo borroka, elkartasuna abiapuntu hartuta.

Dolores eta Juanekin hitz egin dugu. «2014an ezagutu genuen Coop57, gure kooperatibak arazoak zituen garaian. Aliatua ez ezik, funtsezkoa ere bada Coop57. 2015ean 600.000 euroko finantziazioa eman zion kooperatibari. Inflexio-puntua izan zen, gaur egungo etaparen hasiera agian, kaudimen ekonomikoa eta herriarentzako aberastasuna eta lana lortzeko».

Nabarmentzen dutenez, «herriaren proiektua da eta udalarekin lotura estua du, bederatzi kooperatibak biltzen dituen batzorde kooperatiboak kudeatzen duen arren». Gainera, proiektuaren helburua beti izan da «enplegu osoa sortzea, Marinaledako eta eskualdeko herritarrentzat ahalik eta lanpostu gehien sortzea». Azken urteotan, «18.456 jornal sortu dira urtero El Humoso finkan, eta 4.464 jornal kontserba begetalen fabrikan». Hala, herriko eragile ekonomiko bihurtu dira, eta funtsezko tresna herritarren bizitza hobetzeko.

Marinaleda proiektu kooperatiboa proiektu komuna eraikitzeko adibidea da. Esperientzia honek guztion ongia txikitzen duen kapitalismo aseezinari egin dio aurre. Izan ere, funtsezko elementuetako bat da lurra herri-ondasuna dela, Andaluziako Junta –El Humosoko 1.200 hektareen jabea da– lur hori pribatizatzen saiatu bazen ere. Bertan jarduten dute egun kooperatibek.

«Lurzoru publikoaren eta kudeaketa kooperatiboa»ren alde egiten dute, azken urteotan praktikan jarri duten moduan. «Kolektiboki borrokatu genuen lurra ezin da pribatizatu, merkantilizatu». «El Humoso ez da espekulazioko salgaia; lana eta aberastasuna belaunaldiz belaunaldi banatzeko erabili behar da». Finkaren sarreran agertzen den moduan: **«Esta tierra es para los jornaleros en paro de Marinaleda»**, eta alboan, **«Tierra y utopía»**.

«Marinaledako kooperatibek Andaluziaren kooperatibismo eraldatzailearen parte izan nahi dugu, eta berau sustatu», diote Juan eta Doloresek. «Horretarako, ohiko banku kapitalistetatik kanpo finantzatzeko tresnak behar dira. Finantza-mota horiek gabe are zailagoa izango da Andaluzian ekonomia sozial eraldatzaileko eredurantz egitea. Presente dugu Coop57k horretan guztian duen eginkizuna».

> **“La Marinaleda kooperatiba zuhaitz bat da eta Coop57 (…) zuhaitz horren parte da”**

Agurtzeko, ekintzarako deia luzatzen digute Dolores eta Juanek: «Jendeari esan nahi diogu, banku eta finantza konbentzionalekin ados badaude, haien bezero izaten jarrai dezatela, aukera gehiago daudela pentsatu gabe. Baina, ados ez badaude, bila ditzatela aukera bidezkoagoak, solidarioagoak eta jasangarriagoak. Coop57 da horietako bat». Amaitzeko, irudi bat dakarkigute burura: «Marinaleda kooperatiba zuhaitz bat da eta, Coop57, jardunaren, laguntzaren eta elkartasunaren bidez, zuhaitz horren parte bihurtu da».

LA SELVA COOP

COOP57ko ZERBITZU-BAZKIDEA / POBLE NOU BARTZELONA



# Kooperatibismoa

## ikus-entzunezkoen oihanean

**La Selva kooperatiba jatorri eta genero anitzetako zinemagileek osatzen dute. Filmak eta prestakuntza-programak egiten dituzte, historikoki isildutako begiradak erdigunean jartzeko, eta, hala, ikuspegi feministak, arrazismoaren aurkakoak, dekolonialak eta libertarioak dituzten mundu-ikuskera anitzagoak sortzeko**

Sortu zirenetik, esperimentazioan eta elkarlaneko sorkuntzan horizontalki lantzen dituzten prozesuetan, «egile-zinematografiaren aldeko apustua egiten dugu, narratiba autentiko eta ausarten bidez, funtsezkoak baitira mundu askotarikoa eta bidezkoagoa irudikatzeko».

> **“Hortaz, gure proiektua posible egin duen ekosistemaren funtsezko parte izan da, izaten ari da eta izango da”**

La Selva kooperatibak lau bazkide ditu: Lu, Marc, Liliana eta Jana. Galdetu diegu ea zergatik batu ziren Coop57ra eta, diotenez, «guretzat, kooperatiba izatea kooperatiben zirkuituaren parte izatea ere bada, antzeko lan-ildoak partekatzea eta, batez ere, laguntza-ekosistema baten parte sentitzea, metodo hegemoniko kapitalista bertikalak eraisteko logiketan kokatzea posible egiteko». Gehitzen dutenez, «kooperatiba txikia gara eta, beraz, hegemonikoak ez diren beste egiteko moduetan aritzeko, ekosistema hori beharrezkoa da». Hala, Coop57ko kide izatea erabaki zuten. Izan ere, «La Selva kooperatibaren proiektua aurrera eramateko, kooperatibismoan, etika sozialean eta borondate eraldatzailean oinarritutako logikak aplikatuko zituen finantza-entitate kooperatibo baten laguntza behar genuen».

Gaur egun, hiru proiektutan dabiltza buru-belarri. *Viure el barri* da bat, esperimentazio zinematografikoko ikastaroa, Raval auzoan bizi diren gazteei zuzenduta. Zazpi eguneko ikastaroa da eta, bertan, gazte talde bat, aurrez esperientziarik gabe eta ikus-entzunezko zinemagileen eta irakasleen laguntzaz, zinemagintzara hurbiltzen da, hausnarketa kritikoaren eta zinematografia-praktikaren bidez auzoan inplika daitezen sustatzeko. *L'Acceleradora* da bigarrena, haien hitzetan: «esperientzia bizia eta sortzailea, zinemagile hasi berrientzat diseinatua. Ibilbide luzeko zinegileek hamaika eguneko ikastaroa gidatzen dute. Bertan, Abbas Kiarostami zinegile irandarrak hasitako lan-metodologia erabiltzen da, Lucrecia Martel eta Werner Herzog-en ekarpenak gehituta, sormena, esperimentazioa eta lan kolaboratiboa sustatzeko». *Horagai* dute hirugarren proiektua: zinema sortzeko gunea da, gizartean desabantaila-egoeran dauden gazteei zuzendua. Ikus-entzunezko tekniken eta sorkuntzaren bidez, beren errealitateak aztertzen dituzte, ahotsa sortzaileei emateko, «beren mundu-ikuskeraren sortzaileak dira, estereotipoak apurtzea helburu».

Coop57k zer garrantzia duen galdetuta, erantzun dute: «Coop57k gure proiektuan konfiantza jarri du eta hari esker lortu dugu finantziazioa; konfiantza diogunean esan nahi dugu lagundu eta babestu egin gaituztela, baina kooperatibaren bidea egituratzen joateko espazioa ere izan da. Hortaz, gure proiektua posible egin duen ekosistemaren funtsezko parte izan da, izaten ari da eta izango da».



# Ovidi Montllor gogoan: *va com va,* nahi dugun bezala izan arte

**Paral·lel 62 aretoak gainezka egin zuen, La Seva Coop eta Coop57 Fundazioaren eskutik, musikaren, elkartasunaren eta kooperatibismoaren gauean**

Kartelak «sarrerak agortuta» zioen azarotik. Urtarrilaren 16an **Ovidi4** taldea berriz elkartu zen **Toti Soler** gitarra-jotzailearekin ***«Ovidi62 – No se'n va és qui torna»*** ikuskizuna aurkezteko. ***'On eres quan hi eres'*** dokumentala egiteko Coop57 Fundazioak bultzatutako mikromezenasgo-kanpainari laguntzeko modu bat zen. Kantautorearen alaba **Jana Montllor** da dokumentalaren zuzendaria; zinemagilea da, eta **La Selva** kooperatibako bazkidea.

Ovidiren abestiak eta bizitza gogoratu zituen gaua Fundazioko Isabel Moga eta Xavier Artalen hitzekin hasi zen, eta ondoren hartu zuen hitza Janak. Hark gogoratu zuenez, «ahanzturaren planifikatzaileen kontra aitaren memoriaren hariei tiraka, konturatu nintzen batailak, lehenik eta behin, mahaian irabazten direla, ideiak mastekatuz eta lagunei haserre partekatuz: horixe da egiten ari garena». Aste batzuk geroago, martxoaren 10ean, kantautorearen heriotzaren urteurrena zela, kontzertu bera egin zen Alcoiko Calderón Antzokian. Ovidiren jaioterria da Alcoi eta langile-mugimenduaren historiari estuki lotutako udalerria.

Bi ikuskizun solidario horien bidez, 10.350 euro lortu dira dokumentala egiteko. Gainera, dohaintza-emaile guztiek jasoko dute, San Juan bezperan, Bartzelonako kontzertuaren audio-grabaketa. Buletin hau amaitzean, helburuaren % 85 lortua zuen ekimenak; 428 ekarpen eta 34.611 euro. **Helburua 40.242 euro lortzea da**; Montllorren jaiotze-egunarekin bat dator zenbaki hori.

**ovidinovamemoria.coop57.coop**

## 2023ko abenduaren 31ko datuak

# Ekarpenen saldoa




| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Funts propioak | 2.304.395 | 2.494.602 | 2.689.405 | 2.856.124 | 3.075.852 | 3.273.915 | 3.440.423 |
| Maileguak bermatzeko funtsa | 255.716 | 296.463 | 368.863 | 423.628 | 435.239 | 455.075 | 462.267 |
| Zerbitzu Bazkide eta kolaboratzaileen borondatezko ekarpenak | 32.942.060 | 35.434.833 | 39.039.530 | 43.677.587 | 48.564.705 | 53.269.444 | 54.783.874 |
| **GUZTIRA** | **35.502.171** | **38.225.898** | **42.097.797** | **46.957.339** | **52.075.796** | **56.998.435** | **58.686.565** |

# Emandako maileguak




| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Epe laburrerako eta luzerako inbertsio-maileguak | 3.059.053 | 3.185.062 | 3.292.066 | 3.812.126 | 568.547 | 1.765.655 | 2.010.135 |
| Diru-laguntzak, fakturak eta hitzarmenak aurreratzea | 5.356.365 | 5.258.494 | 8.190.002 | 3.744.940 | 5.284.146 | 6.350.620 | 5.023.087 |
| Kreditu-polizak eta altxortegi-maileguak | 1.988.428 | 4.628.094 | 6.121.200 | 7.349.915 | 8.940.065 | 11.339.588 | 11.743.100 |
| Energia-maileguak | - | - | - | 1.018.262 | 2.201.900 | 288.691 | 891.567 |
| Etxebizitza eta lokaletarako maileguak | 2.391.000 | 1.180.000 | 1.706.118 | 1.546.000 | 6.033.630 | 3.871.825 | 6.358.072 |
| Irauteko asmoa duten kapitalizazioetarako maileguak | 526.000 | 318.360 | 38.000 | 97.664 | 234.839 | 473.000 | 177.000 |
| **EMANDAKO MAILEGU BERRIAK GUZTIRA** | **13.320.846** | **14.570.010** | **19.347.387** | **17.568.907** | **23.263.127** | **24.089.379** | **26.202.961** |
| MAILEGUAN SALDO BIZIA | 16.633.159 | 19.256.271 | 21.773.691 | 25.370.095 | 30.755.585 | 37.347.323 | 40.864.931 |

# Egindako lana sendotzen

**2023a urte garrantzitsua izan da Fundazioarentzat. Proiektu kopuruak zein lanak gora egin dute, eta 2024 urteari begira, Fundazioaren engranajea doitzeko eta finkatzeko balio izan du. Horri esker, hazten jarraitu behar dugu, gure indar kolektiboa handitzen**

Koordinazio-mailan eman da aldaketa handienetako bat. Urrian Licán Luque hasi zen kudeaketa-lanetan eta Maritza Buitragok hiru urte eta erdi baino gehiagoko lanaren ostean utzitako lekua hartu zuen. Maritza, ordea, ez da oso urrun joan, Coop57ren arlo politikoaren parte baita orain. Eskerrak eman nahi dizkiogu denbora honetan egindako lanagatik.

Edukiari dagokionez, Fundazioa sendotzen aritu gara, aliantza berrien bidez, baliabidez hornituz eta egitekoa indartzeko ahaldunduz, dela ezagutzera emanez, dela proiektu berriak bilatuz, dela emaileen oinarria zabalduz. Ildo horretatik, eta Fundazioa ikusarazi eta jarduna azaltzeko asmoz, sare sozialetan profilak jarri ditugu martxan, Instagrametik hasita. Bertan, Fundazioaren lana, oinarri ditugun balioak eta helburuak azaltzen ditugu, eta, aldi berean, ESE indartzeko proiektuak, ekimenak eta eduki interesgarriak hedatzen ditugu.

Pasa den abenduan dohaintzak biltzeko kanpaina bat ere jarri genuen martxan. Joan Manel Pérez irudigilearen kolaborazioa izan dugu aurten eta harekin emaile guztiei bidaltzeko postalak diseinatu ditugu. Kanpaina horretan, 12.000 euro baino gehiago bildu dira 84 dohaintzen bidez eta, horri esker, konpromisoa, elkar laguntza eta eraldaketa sozial eta ekonomikorako konplizitate berriak ehuntzea protagonista diren proiektuak aurrera eraman ahal izango ditugu.

Maiatzaren 31ra arte luzatu den proiektuetako bat Amillubi Lurra Taupaka da, Biolur elkarteak Koop57 Euskal Herriaren laguntzarekin bultzatutako elikadura-burujabetzako proiektua. Asmo handiko mikromezenasgo-kanpaina izan da: helburua 150.000 euro biltzea zen Gipuzkoan nekazaritza-lurrak eta baserri bat eskuratzen laguntzeko. Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa sustatzeko 1993an sortutako irabazi asmorik gabeko Gipuzkoako elkartea da Biolur, eta herritarrek eta ekoizleek osatzen dute. Proiektuaren helburu nagusia da Amillubi ondasun kolektibo bihurtzea, biztanleek bertako janari osasuntsuak izan ditzaten, nekazariek lurra modu duinean landu ahal dezaten eta lurra espekulaziotik babes dadin, hala lehen sektorea eta elikadura-sistema indartzeko. Buletin hau idazten amaitzean, helburuaren ia % 75 lortua du dagoeneko; 111.370 euro bildu dira 617 dohaintzen bidez. Euskal kooperatibismoak biziki parte hartu du kanpainan.

Plàudite Teatrerekin ere lan egin dugu *Posem el focus* proiektua egia bihurtzeko. Plàudite Teatre entitateak arte eszenikoetan parte hartzearen eta sorkuntzaren bitartez garapen pertsonala eta komunitarioa sustatzen du. Hala, arte eszeniko eraldatzaileak oinarri, desberdintasunak jorratzen dituzte L'Hospitalet de Llobregaten. 260 m2-ko industria-lokal bat egokitu dute, bertan gazteek entseatu, elkarrekin sortu eta ahalduntzeko. 2023 urtean 13.000 euro baino gehiago lortu ditugu 142 dohaintzen bidez, proiektua egia bihurtzeko.

**Yayo Herrerorekin batera lurraldean zehar**

Lliures Proiektuaren baitan –Òmnium Culturalekin eta ECAS (Entitats Catalanes d'Acció Social) entitatearekin 2016az geroztik sustatzen dugu– eta Valentziako Sembra Llibres kooperatibarekin batera, Yayo Herrero ekofeministaren ***Absències i pèrdues*** liburua editatu genuen. Marina Garcés eta David Fernàndezen hitzaurreak ditu, eta krisian dagoen gizartearen hondakinen artean zutik dagoenari buruzkoa da. Antropologoa eta gizarte hezitzailea da Yayo, eta ekologia sozialean erreferentea. Hainbat areto bete genituen pasa den urtarrilean: Solsonako Carles Morató liburutegia –L'Aradaren laguntzarekin–, l'Hospitaleteko Plàudite Teatre eta Bartzelonako Finestres liburu-denda. Oraindik ez baduzue eskuratu, liburua erostera animatzen zaituztegu. Gainera, irabaziak, oso-osorik, Lliures proiektuarentzat izango dira

Jarraitu Fundazioa Instagramen: **@fundaciocoop57**








**“Ezerk ez zuen iraun porrotaren ostean: ez zen ez eraikinik zutik, ez airean izenik, hondamenean aldaketarako aldarria besterik ez, eta nahi beste lokatz geure burua berreraikitzeko. Iraultza batzuk monosilabikoak dira.”**

[ Mireia Calafell, *Sí* ]

koop57 SCCL
finantza-zerbitzu etikoak eta solidarioak

https://**coop57.coop**

